



## ULEPICC-Españaren X. Nazioarteko Biltzarra

**Kultura industriak birpentsatzea.  
Joerak, boterea eta politikak AArean eta plataformen aurrean.**

**Bilbo, 2027ko urtarrilaren 21-22  
Bizkaia Aretoa-EHU**

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea  
Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saila  
Euskal Herriko Unibertsitatea

---

### EKARPENAK EGITEKO DEIA

ULEPICC erakundearen (*Unión Latina de Economía Política de la Información, la Comunicación y la Cultura*) Espainiako atalak gonbita luzatu die komunikazioaren, kulturaren eta informazioaren arloko komunitate akademikoari, profesionali eta gizarte mugimenduei parte hartzera 2027ko urtarrilaren 21ean eta 22an Bilbon egingo duen X. Nazioarteko Kongresuan.

**Kultura industriak birpentsatzea** izenburuarekin, kongresuaren helburua izango da, ikuspegi teoriko kritiko batetik abiatuta, komunikazioaren eta kulturaren eraldaketa garaikideei buruzko ikuspegiak trukatzeko eta eztabaida akademiko, profesional eta soziala bultzatzeko.

Gaur egun, kultura industriak daude berregituratze prozesu bizi batean, hainbat faktorek markatutako bilakaera batean: plataformen kapitalismoaren sendotzea, zaintza, adimen artifizial (AA) sortzailearen hedapena, jabetzaren kontzentrazio gero eta handiagoa eta azpiegitura digital estrategikoen kontrola. Prozesu horiek funtsezko galderak planteatzen dituzte egungo kultura ekoizpen, banaketa eta kontsumo moduei buruz, bai eta komunikazioa eta kultura demokratizatzeo aukerei buruz ere.

Eragile korporatibo global berriak agertzeak, zeregin sortzaile eta intelektualen automatizazio gero eta handiagoak, datuen erauzketa masiboak eta ikusgarritasunaren eta arretaren berrantolaketa algoritmikoak zalantzan jartzen dituzte industria kulturalak tradizionalki aztertzeo erabili izan diren kategoria klasikoetako batzuk. Aldi berean, aldaketa horiek berretsi egiten dute kontzentrazioari, merkantilizazioari, kultura lanari, politika publikoei, globalizazioari eta kultura aniztasunari buruzko eztabaida historikoen egokitasuna.

Ikuspegi horretatik, kongresuak proposatuko du gogoeta egitea kapitalismo kulturalaren eta komunikatiboaren egungo garapen fasearen ezaugarri diren jarraitutasunei eta hausturei buruz, bai eta komunikazioa, kultura eta ezagutza demokratizatzeo bideratutako alternatiba arautzaile, instituzional eta sozialei buruz ere.



Kongresuaren helburua izango da diziplinaz gaindiko ekarpenak biltzea, kultura industriaren eraldaketa garaikideak definitzen dituzten hainbat ikuspegi landuko dituztenak. Beraz, onartuko dira komunikazioaren, kulturaren, politika publikoen, ekonomia politikoaren, soziologiaren, ikasketa kulturalen eta antzeko beste diziplina batzuen arloko ikerketa emaitzetan oinarritutako proposamenak, bai eta praktika profesionaletik, instituzionaletik eta aktibistatik eratorritako gogoetak ere.

### Ardatz tematikoak

Biltzarraren gai nagusiari buruzko lanak ez ezik, komunikazioak ere bildu nahi genituzke, ondoren aipatutako ardatz tematikoak landuko dituztenak, jarrera kritiko, eraldatzaile eta emantzipatzaile batetik:

- Ekonomia politikoa eta komunikazioaren eta kulturaren teoria kritikoa. Epistemologia, teoria eta metodologia.
- Komunikazio eta kultura politikak.
- Komunikazioa, herritartasuna eta demokrazia.
- Komunikazioaren eta kulturaren egitura, kontzentrazioa, industria, merkatua eta erakundeak.
- Informazioaren, komunikazioaren, kulturaren eta ezagutzaren teknologiak.
- Aniztasuna, pluralismoa eta zerbitzu publikoa.
- Komunikazioa, kultura eta generoa.
- Komunikazioa, aldaketa eta justizia soziala.
- Plataformizazioa, algoritmoak eta AA kulturen eta komunikazioan.
- Azpiegitura digitalak, subiranotasun teknologikoa eta botere korporatiboa.
- Politika publikoak, erregulazioa eta alternatiba demokratikoak, plataformen eta AAren aurrean.
- Sormen lana eta automatizazioa: prekarizazioa, desplazamendua eta lan birkonfigurazioa, kultura eta komunikazio ekoizpenean.
- Desinformazioa, *deepfake*-ak eta manipulazio sinbolikoa ekosistema mediatikoan.

### Proposamenak bidaltzea

Komunikazio proposamenen laburpenak jasoko dira 2026ko urriaren 30era arte (400 eta 500 hitz artekoak). Bidalketa egiteko, **inprimaki hau** bete behar da, komunikazioari buruzko informazioarekin.

Bi komunikazio onartuko dira gehienez egile bakoitzeko, egiletza indibiduala bada; hiru, egiletza kolektiboa bada.

Komunikazio proposamenek lanaren alderdi nagusi guztiak azalduko dituzte: ikerketaren aurrekariak, azterlanaren xedea, esparru teorikoa eta/edo metodologikoa, eta, hala badagokio, espero diren emaitzak.

Ebaluazioaren emaitzak jakinaraziko dira 2026ko azaroaren 27an.



## Emitza curricularrak

Onartutako laburpen guztiak argitaratuko dira kongresuaren **laburpenen liburuan**. Gainera, lankidetzaz hitzarmenak egingo dira **inpaktuko aldizkariekin**, kongresutik sortutako ikerketa artikulua bidaltzeko (laster).

## Izena-ematea

	Aldez aurreko izen-ematea (abenduaren 18ra arte)		Izen-emate erregularra (urtarrilaren 15era arte)	
	Ulepicc kideak	Kideak ez direnak	Ulepicc kideak	Kideak ez direnak
<b>Kuota estandarra</b> (komunikazioa onartuta)	60€	100€	75€	120€
<b>Kuota murriztua</b> (komunikazioa onartuko zaien ikasleak eta langabeak)	30€	70€	40€	80€
<b>Komunikaziorik gabe parte hartzea</b>	Doan	20€	Doan	30€

ULEPICC-Españaren banku kontua: ES73 1491 0001 2.230 14 8602

Kontzeptua: EHU kongresua "IZENA+ABIZENAK"

Bidali ordainagiria kongresuaren posta elektronikora.

Izen-ematea baliogabetzen bada, ordaindutakoaren % 80 itzultzeko eskatu ahal izango da (2027ko urtarrilaren 15a baino lehen).

Faktura eskaera egingo da KONGRESUAREN MAILean, sartu beharreko fakturazio datuak adierazita.

## Informazioa eta kontaktua

[ulepicc.bilbao2027@ehu.es](mailto:ulepicc.bilbao2027@ehu.es) | [www.ulepicc.es](http://www.ulepicc.es)

Kide izateko eskaera ULEPICC-Españari: <https://ulepicc.es/como-asociarse/>

## Egoitza

Bizkaia Aretoa - EHU

Abandoibarra etorbidea 3 - 48009 Bilbo

<https://maps.app.goo.gl/PUwn6Wxv8aCtphMT9>

## Antolatzaileak



Ikus-entzunezko  
Komunikazioa eta  
Publizitatea Saila  
Departamento  
de Comunicación  
Audiovisual y Publicidad